

Oier Guillan

ZAURI BOLODIA

Irudiak:
Idoia Beratarbide




AUTOBIOGRAFIA - NOBELA

288 or. | 13,5 x 21,5 cm. | TAPA GOGORRA

Salneurria 19,50 €

ISBN 978-84-17065-35-5



Krisian dagoen aktore baten egunerokoa da liburu hau; hogeita hamar urteetako krisaldian sinesten ez duen arren, ezin uka dezake bere buruari nahi baino gehiagotan galdetzen diola zertan ari ote den. Undergroundean hasi eta idealista porrokatua den Zauri Bolodia apurka-apurka profesionalizatu da; bide horretan etorriko zaizkio nekea, desengainua, prekaritatearen zama eta, azkenik, bere burua berrasmatu beharra. Bidaia literario horretan, Oier Guillanen alter egoa den horrek kulturaz hausnartzen du, amateurismoa vs profesionaltasunaz, hizkuntzaz eta politikaz, gutik nira doan bidaiaz, generoaz eta sorkuntza prozesuaz.

Liburuaren hitzaurrean, Madam Slipek dio: «Zinikoak gara benetako azken idealistak. Zinikoak gara gauzak benetan inporta zaizkigulako, edo hori uste dugu guk, sekretuan, barne-barnean. Benetako ziniko batentzat, ez dago gauza amorragarriagorik ustezko idealista mediokre bat baino». Hona gure kulturaren eta sorkuntzaren gaineko begirada zorrotz, kritikoa eta autokritikoa bat eta, hala ere edo horregatik, utopikoa eta ederra.



Oier Guillan (Larratxo, 1975). Donostiako periferian jaioa, bere lehen urtetik Oretetari atxikia bizi izan den arren. Idazlea, kazetaria, antzerkigile. Mikelazulo kultur elkarrean hasi zuen sormen-lanei loturiko bidea. Literaturan *Eskuen sustraiak*, *Herio heroi/Arra.Arraroa*, *Hura ez da lekua*, *Elkartasun basatia* eta *Mr. Señora* ditu azken lanak. 2008tik Metrokoadroka kolektiboko kidea da, bertako lagunekin taularatu ditu *Poza*, *Zertarako Hegoak*, *Su izan nahi*, *Salto* eta *Miss Karaoke* lanak. Dejabu,

Anakrusa, Rouge Elea taldean kolaboratzailea izan da, *Gabrielen lekua* (2013) eta *Nola belztu behar zuria* (2014) proiektuetan parte-hartzailea.



Tel. 948 703 934
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.eus